

Kulturaren aldeko Ituna 2015

*Kulturarekiko konpromisoa, garai aldaketako
testuinguru batean*



GESTORES CULTURALES
Federación Estatal

Sarrera

Kulturaren aldeko Itun berria, talde gogoetaren eta parte-hartzearen emaitza

2015eko Kulturaren aldeko Itunak –Kultur Kudeatzaileen Elkarleen Estatuko Federazioak (FEAGC) sutatzen duen Kulturaren Arloko Estatuko II. Konferentziaren esparruan aurkeztu zuten– helburu du Espainiako Estatuaren kultur garapenerako aukerak eta erreferentziak ezartzea, eragile publiko eta pribatuentzat tresna erabilgarri bihurtuta, maila desberdinetako administrazioetarako, kulturaren arloko alde guztietarako, herritarren eztabaidarako eta, azken batean, kulturarekin eta hura sustatzearekin konpromisoa hartua duten eragile guztientzat.

2015eko Kulturaren aldeko Ituna parte-hartze prozesu baten emaitza da, eta hainbat erakunde eta profesionalek egin dituzten ekarpenak izan ditu. Erakunde eta profesional horiek elkarlanean aritu dira, bai 2010eko Itunaren ebaluazioa berrikusten, bai Loomio plataforma birtualaren bidez etorkizunaren gainean gogoeta egiten ere. Plataforma hori, hain zuzen, aktibo egon da Kulturaren Arloko Estatuko II. Konferentzia egin aurreko asteetan. Era berean, konferentzia horretako eztabaidetan parte hartzera gonbidatutako adituek egindako hausnarketek eta proposamenek hori guztia aberastu dute. Hartara, prozesu horri esker, itun proposamen honetara iritsi gara, iraganetik ikasi eta oraina aztertuta, geroari begiratzen diona, kultura hartuta proposamen jakin eta zehatz batzuen bidez begiratu eta indartu beharreko balio publikotzat.

Itunak ezaugarri hauek ditu:

- **Lanerako tresna:** dokumentu baten erreferentziaren edo asmoen adierazpenaren eginkizuna gainditu eta lanerako tresna izan nahi du, FEAGC federazioak Estatuko kultur eragile guztiekin eta, oro har, gizartearekin partekatutakoa.
- **Trukerako eta eztabaida etengabeko bokazioa:** Ituna egiteko prozesuak berak (parte-hartzean oinarritutakoa eta irekia) balioa du bere baitan eta koherentea da bera ulertzeko moduarekin: tresna bizia, berrikus eta eguneratu daitekeena, kultur politiketan ekintza zehatzeko edo kontzeptuzko etorkizuneko eztabaidak zuzentzeko proposamen bat.
- **Adostasunerako konpromisoa:** era berean, itun bat konpromiso bat da. Kasu honetan FEAGC federazioak kultur eragile guztiak hartu nahi ditu konpromiso horretan, kultur garapenerako jardunbide konpartituko esparru bat sortuta.

Abiapuntua: kulturaren balioa, garai aldaketako testuinguru batean

Espainiako gizarteak azken urteetan izan dituen eraldaketen ezaugarria izan da gizarte eta ekonomia ingurunearen oinarritzko zutabeetan, orain arte ezagutzen zirenetan, izan diren aldaketen azelerazioa eta sakontasuna. Ekonomiaren arloko krisia jotzen da katalisi faktoretzat, garai aldaketa bat eragin duena, aldaketen garai bat baino gehiago, eta ondorioak izan dituen gizartean, kulturean, ekonomian eta politikan. Hondamendizko egoera batekin lotu behar ez den garai aldaketa bat, aukera leiho berri bat irekitze moduan hartu behar dena. Izan ere, krisi sistemiko batek eragindako aukera leihoa da, ziurtasunik ezeko egoerak ez ezik, berrikuntza sozialetik eta gobernantzarako oinarri berriak antolatzetik erantzuteko aukera berriak ere sortzen dituen. Alde horretatik, krisi sistemikoko faktore estrintseko batzuek eragiten diote kulturari, aldi berean, bere berriazko errealitatea krisian jartzen dutenek.

Kultur adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko Unescoren konbentzioak (2005), Espainiak onartuak, ondokoa ekartzen du gogora: “Kulturak balio handia du bere baitan, eta era berean funtsezko balioak garatzen ditu gizarte demokratiko baterako, hala nola ezagutza kritikoa, memoria eta sormena. (...)”. Ziurtasunik ezeko testuinguru batean, kulturak –eraldaketako egoerak ulertu ahal izateko herritarrek duten tresna nagusi moduan ulertuta– are erabakigarriagoa den balioa hartzen du. Ezagutza oinarritzko balioa da gizakion antolaketa sozialerako eta, egun, handituz doan konplexutasuneko testuinguru batean, kultura ordezkazina da askeak eta arduratsuak diren pertsonak eratzean, gogoetazaleak diren herritarrak, sortzaileak diren profesionalak eratzean, aldatzen doazen inguruneetan. Bere aldetik, kulturaren arloko politikak gaitasun hori herritar guztiei hedatzeko gizarte demokratiko moduan hartu dugun tresna gisa azaleratzen dira. Baina, kultur eskubideen berme argi batera iritsi gabe gaudela –XX. mendearen erdi aldera ulertzen ziren moduan–, ziurtasunik ezeko egoera bat sortu zaigu, bizitzen ari garen garai aldaketaren aurrean.

Hain zuzen ere, ziurtasunik ezeko egoera honek kulturaren baliora hurbilketa desberdin bat egiteko aukera jartzen digu aurrez aurre, orain arte nagusi izan den hurbilketatik urrunduta. XX. mendeko 80ko hamarkadaz geroztik, kulturaren balioa inbertsio publikoa justifikatu behar izatearekin lotu izan da, kultur inbertsioaren itzulera ekonomikoki kuantifikatu behar izateko etengabeko nahi baterako joera izanda, eta, aldi berean, beste arlo batzuetako politikak (hezkuntza, turismoa, hirigintza, segurtasuna...) garatzen laguntzeko kulturak duen gaitasuna nabarmentzen duten azterlanak ugaritzen joan dira, kanpoko helburuak lortzeko duen eginkizuna bide gisa erabilia.

Haatik, kanpo-efektuetara zuzendutako begirada hori gainditzeko modua ematen du egungo testuinguruak, kulturaren balio publiko intrintsekoan arreta jarrita, balio ekonomikotik bereizita eta soil-soilik tresna gisa erabiltzea baztertuta. Hartara, balio soziala sortzea, kulturari lotutako elementu benetakoak, ukiezinak eta esperientziakoak nabarmentzen dira. Ikuspegi hori integratzea kultura herritarrei eta, oro har, gizarteari onurak ekartzen dizkien ondasun publikotzat jotzearen balio berekoa da. Jarrera horretatik, asmoa da uko egitea etengabe justifikatu behar

izateari zergatik egin behar dugun gizarte moduan kultur garapenaren alde, ulertzen baitugu gizartea bera eta haren ongizatea dela alde-egite hori justifikatzen duena. Baina, horrez gain, ikusmolde horrek logika merkantilista gainditzen duen kulturaren bereganatze sozial batera bultzatzen du, herritarrak eta gizartea interesaren erdian kokatzeko eta kulturaren baterako kudeaketaren protagonista gisa.

Esparru honek eskatzen du kulturak nagusitasun handiagoa izatea agenda sozialean. Nahiz eta badiren gogoetabide ofizialak kulturari nagusitasun hori ematen diotenak eta herritarrek, beharbada, hautematen duten, garapen ekonomikoan duen eraginarengatik edo eraldatzeko duen gaitasunarengatik, errealitatea da kulturak eta kultur arloko adierazpenak periferiako kokalekua duela gizartearen, politikaren eta hedabideen agendan, maila guztietan, eta, ondorioz, egungo krisiaren kaltetun handietako bat da. Kokaleku hori kontraesanean dago argi eta garbi kulturak gizarterako duen balioarekin. Zorionez, herritarren zati handi batek estimu handitan ditu oraindik ere arteak eta kultura, eta, hartara, herritarrak neurri handiagoan inplikatzeko ziurtatuko luke garatutako politika publikoen etengabeko hobekuntza, presio sozial handiagoa eta eskakizun maila handiagoa, zentzua eraikitze eginkizunean eragile aniztasun handiagoa tartean sartuta.

Garai aldaketa honetan, sareak protagonistaren rola du gordea, berezitasun nabarmenak dituela arteen eta kulturaren esparruan. Internet eraldatzen ari da kultur balioaren kate osoa, sorkuntzatik kultura kontsumitzeko eta eskuratzeko eredu berrietaraino. Horrek guztiak errealitate berria eta kulturarako erronka garrantzitsuak jartzen dizkigu aurrez aurre, eta hartan argitu beharreko kontuak erantzun gabe daude oraindik. Dena den, ziurtasunik ez izateak ez du ekarri behar aldatzen doan testuingurua saihestea.

Asko dira kulturak aurrean dituen erronkak garai aldaketa honetan, eta haren ezaugarriak azter daitezke egun, bilakaera eta jalkitze prozesuan badaude ere. Alabaina, herritarrak beren arazoak konpontzean inplikatzeko testuingurua ere bada, kultur eskubideekiko, kulturaren jabetze sozialarekiko eta, azken batean, haren balio publiko eta ongizatearen gizartearen eredu berriak antolatzean izan behar duen nagusitasunarekiko konpromisoa berresteko.

2015eko Kulturaren aldeko Itunak, parte hartzeko hausnartze prozesu baten esparruan egindako gogoetak eta proposamenak aintzat hartuta, kultura nagusitasun kokagune batean, garai aldaketako agenda batean, jarriko duten eredu batzuk ezarri nahi ditu, kulturaren balio publikoa aitortzetik, globalizazioaren erronkei eman beharreko erantzunetatik, kultur aniztasunetik, kultur eskubideak bermatzetik, eta gizarte eta kultur ingurunearen artean beharrezkoa den konexiotik abiatuta.

Kulturaren aldeko Ituna

2015eko Kulturaren aldeko Ituna tresna moduan planteatzen da, eta, eginkizun instrumental hori dela-eta, kultur sistema eratzen duten eta beren erantzukizun, eskumen eta aukeretan zehaztuta dauden aukeretarantz aurrera egiteko eta proposatutako ekintzak gauzatzeko gaitasuna duten eragile desberdinak interpelatzeko dituzten proposamenak abiapuntu hartuta egituratzen da.

Kulturaren arloa, oro har, eragile publiko eta pribatuak

1. Kulturaren balio publikoaren alde egitea, ikuspegi berri batetik.

Ezinbestekoa da paradigma aldatzea kulturaren gaineko gogoetabideetan, ekartzen dituen kanpo-efektuetan kultur inbertsioaren justifikazioa gainditu eta arreta jartzeko kultur egintzaren balio intrintsekoan. Kulturak herritarren ongizatearen oinarritzko zutabe izatera igaro behar du, eta, horrenbestez, politika publikoetan eta ongizate hori ebaluatzeko tresnetan sartu behar da, barnean hartuta parte-hartzean oinarritutako ikusmolde bat eta ez soilik zerbitzuz hornitzen duen ikusmolde bat. Aldaketa kontzeptual bat da, esanahiz betea, arloan bertan hasi beharrekoa, hartara, gero gizarte osora zabaltzeko, besteak beste, proposamen jakin eta zehatz hauen bidez:

- Artearen eta kulturaren itzulera sozialaren gaineko azterlanak garatzea eta haiek zabaltzea.
- Balio sozialeko irizpideak sartzeko lehiaketetan eta diru-laguntzak ematean.
- Itzulera sozialeko adierazleak sartzeko kultur politikak eta kulturaren eta sormenaren proiektuak ebaluatzean.

2. Eragile guztiak inplikatzeko kultur sistema dinamikoa eta maila askokoa eraikitzean.

Kultur sistemak desegituratze maila handia du, eta eragileen artean elkarrekiko ezagutza txikia da, bakarka aritzen baitira. Hartara, sistema eraiki behar da eragile guztiek parte hartuta, sistemaren barnean botere oreka berria sortuta eta, kulturaren balio publikoari dagokionez, lan partekaturako aukerak ezarrita; esate baterako, hauek garatuta:

- Eztabaidarako eta gogoeta partekaturako zeharkako guneak sortzea.
- Itun konpartituak eta kultur sistemako eragile guztiek parte hartzen dutenak ezartzea.
- Alor publikoaren, enpresa pribatuaren, Hirugarren Sektoreko erakundeen, Laugarren Sektorekoen eta herritarren arteko parte-hartze eta elkarrikerak guneak eta arloak antolatzeke egiturak eta elkarteak sendotzea.

3. Herritarrek eta ikus-entzuleek neurri handiagoan parte hartzea kulturaren garapenean.

Kultur politiken eta proiektuen erdigunean herritarrak badaude, herritarrak proposamenen hartzaile gisa hartzen dituen arloko logika gaintitu behar da eta aldaketarako eragile moduan kokatu behar dira kultur ereduaren eta kultur garapenaren benetako protagonista moduan. Kulturakoa denaren berjabetze sozialak irekitzea, eskuzabaltasuna, entzutea eta pedagogia eskatzen du. Hauek izan daitezke horretarako tresnak:

- Erakundeetan eta kulturguneetan parte hartzeko kontseiluak sustatzea, herritarren eta ikus-entzuleen ikuspegia eta interesak sartzeko ikuspegi estrategikoan eta eskaintako programazio eta zerbitzuetan.
- Elkarriketa eta proposamen guzuek sortzea, kulturaren arloko eragileen (programatzaileak, zerbitzuen arduradunak, sortzaileak) eta ikus-entzule desberdinen artean.
- Ekipamenduak kudeatzean Hirugarren eta Laugarren Sektoreko erakundeak sartzeko, lagatze gardenak eginda, programa kontratuen eta jarraipen teknikoaren bidez, hartara, denon interesa bermatzeko.
- Kultura eskura izateko gune soziokulturalak kultura garatzeko eta parte hartzeko, berrikuntza sozialeko eta kulturaren berjabetze sozialerako toki izatea lortzearen alde egitea.
- Erakundeak eratzean eta programa publikoak eta pribatuak diseinatzean generoaren ikuspegia sartzeko.
- Erabiltzaileen eta ikus-entzuleen elkarteak eta erakundeak sortzea babestu eta sustatzea, eta aitormena egitea kultur garapenean hizketakide eta eragile aktibo diren heinean.

4. Kulturari rol handiagoa ematea gizarte erakundeetan.

Inguruneari eta gizarte zibileko beste erakunde batzuei dagokienez, nolabait bakartuta egotea amaitu behar du kulturaren arloak eta sortutako dinamiketan esku hartu behar du, hartara, nagusitasun hori lortzeko eta ezagutzak, trebetasunak eta esperientziak trukatzeko. Hauek dira horretarako proposamen batzuk:

- Kulturaren eta sormenaren enpresen ordezkartza eta ikusgaitasun handiagoa enpresen erakundeetan, eta kulturaren arloko langileena, sindikatu erakundeetan.
- Kulturaren eta sormenaren arloen konpromiso eta presentzia handiagoa gizarte zibilean eta gizarte dinamiketan eta herritarrenetan.

5. Jarrera esplizitua izatea, eragile publikoen eta pribatuen arteko adostasuna, ituna eta elkarriketa laguntzeko.

Kulturaren arlo publiko eta pribatu bat egoteak ez du eragotzi behar titulartasun desberdineko eragileek partekatutako estrategiak konfiguratzea eta haiek elkar ulertzea. Hori dela-eta, hau proposatzen da:

- Interes orokorra mesedetzen duten politika publikoak zehaztean eta gauzatzean eragile pribatuek parte hartzea eta elkarriketan aritzea sustatzea.
- Eragile pribatuen konpromisoa lortzea, beren kultur eginkizunaren alderdi publikoan.

- Lankidetzak hori arautzen duten erregelamenduak garatzea eta, horrenbestez, laguntzen dutenak.

Sortzaileak

6. Sortzaileek beren lanetara gerturatzeko prozesuetan inplikatzeko ahalegina nabarmendu behar dute.

Sortzeko prozesua ez da amaitzen jendaurrean jartzen denean, baizik eta komenigarria da sortzaileak lana ikus-entzuleei transmititzeko eta gerturatzeko, hartatik abiatuta elkarrekin hausnartzeko eta eztabaida sustatzeko konpromisoarekin lotuta egotea. Beste alde batetik, sortzailearen eskakizun mailak ezin du gorabeherarik izan lanean ari den proiektuaren tamainaren edo hartzaile izan daitezkeen arabera. Hau proposatzen da:

- Sortzaileek kultura zabaltzeko eta eskura izateko programetan eta ikus-entzule desberdinekin eztabaida eta gogoeta egitekoetan parte hartzea.
- Sormenezko arloen autorregulazioa, ekoizpen eta garatutako ekintza guztietan estandarrei eusteari dagokionez.
- Sormenezko prozesuetan emakumeen presentzia nabarmen handitzea.

7. Egile eskubideei buruzko benetako eztabaida bat egitea, kontuan hartuta sorkuntza pizteko duten eginkizuna.

Sorkuntzaren arlotik eztabaida eragin behar da egile eskubideekin lotuta, jarrera intelektual ireki batetik, hartara, aukera izateko jabetzaren ideian arreta jartzen duten eskemak gainditzeko eta eskubideak sorkuntzarako pizgarriekin lotzen dituzten eskemetara igarotzeko, gizarterako onura den heinean. Hau proposatzen da:

- Jabetza Intelektualeko Legea berrikustea, sorkuntza laguntzeko mekanismoa den neurrian.

Kultur kudeaketaren arloko profesionalak

8. Profesionalek kultur kudeaketarako jardunbide egokien kode bat garatzean inplikatu behar dute eta betetzeko konpromisoa hartu behar dute.

Kulturak, ondasun publiko den neurrian, jardunbide egokien kode deontologiko bat izatera behartzen du. Aurreko esperientzietatik ikastea abiapuntu hartuta, kultur kudeatzaileentzat, publiko edo pribatuentzat, izango den jardunbide egokien kode bat egitea ariketa ona izan daiteke, lanbide honetako kide guztien lan egiteko moduarekiko konpromiso deontologikoa erakutsiko duena. Hau proposatzen da:

- Kultur kudeatzaileentzako jardunbide egokien kode bat egin eta zabaltzea, harekiko atxikimenduak biltzea.
- Kulturaren arlo edo lanbide jakinetara egokituago dauden jardunbide egokien kodeak egin eta zabaltzea.

- Gogoeta egitea, elkarrekin erabakitzeke zein sistema izango liratekeen interesgarri, eta, hartara, behin onartuta, salatu ahal izateko ez betetzea, alde guztietarako bermeekin.

9. Herritarrek kultur proiektuetan parte hartzea sustatu behar da.

Kultur kudeatzaileek erresistentziak eta susmo txarrak gainditu behar dituzte beren lan profesionalarekin lotuta, herritarrei irekitzeko, haien parte-hartzearen bidez. Elkarlanaren aldekoa den jarrera bat izanda, beren ardura peko kultur proiektuak hobetu daitezke. Horretarako, hau proposatzen da:

- Ikus-entzuleek kulturaren egintzarekin izan dezaketen esperientzia hobetzea, gunearekin, programazioarekin eta hobekuntzarekin inplikaturik.
- Ikus-entzule berrien politikak bultzatzea, ingurunera, hezkuntza sistemara eta komunitateko arlo desberdinetako erakundeetara irekitzeki aurrera.

10. Kudeaketa profesionalizatzearen premia errepikatzea, planifikatzean, helburuak argi zehaztean eta ebaluatzean oinarritutako ereduak abiapuntu hartuta.

Kultur kudeatzaileek lanerako metodoak lortu behar dituzte, plangintza estrategikoan eta beren jardunaren emaitzak etengabe ebaluatzean oinarritutakoak. Horretarako, beharrezkoa da:

- Hobetzen joateko konpromisoa hartzea profesionalak, etengabeko prestakuntzaren eta gaikuntza berriak hartzearen bidez.
- Kudeaketan garden jokatzeko konpromisoa hartzea profesionalak eta bai kontuak ematekoa ere, helburu hau eguneroko lanean sartuta.

Herri administrazioak, oro har

11. Gobernuko maila desberdinek kulturara bideratzen dituzten aurrekontuak nabarmen handitu behar dira.

Biztanle bakoitzeko kulturen egiten den gastua Europako batez bestekora gerturatu behar da, tokiko administrazioen gastuaren amaierako betetzean ekarpen nagusi bat eginda – herritarrengandik gertuen daudenak baitira– baina goragoko administrazioen ekarpenen bidez finantzaketa nahikoa egotearen bermea emanda. Horretarako, beharrezkoa da:

- Aurrekontu publikoak urgentziaz berreskuratzea, kalitateko eta oinarritzko kultur zerbitzuak bermatzeko.
- Aurrekontu-zuzkidura nahikoa izatea eta ahalegina administrazioen artean banatzea, garatzen eta ematen dituzten zerbitzuen arabera.
- Gardentasunaren printzipioa kultur administrazioan aplikatzea, aurrekontu publikoen datuak erraz zabaldua, kultur ekintzen benetako kontuak eta aurrekontuen jatorria adierazita.
- Finantzaketa publikorako mekanismo berriak hartzea, jada beste herrialde batzuetan erabili diren formulen bidez, hala nola loterietako diru-sarreretan parte hartzea edo

zerga-ordaintzaileak bere errenta aitorenaren zati bat kultur proiektu jakin batera bideratzea hautatu ahal izateko aukera edukitzea.

12. Koordinazio eta plangintza partekatuko maila handiagoa behar da, gogoetabideetatik harago doazen prozesuak eta mekanismoak ezartzearen bidez.

Herritarrei kultur zerbitzuak ematen aritzen diren administrazio maila desberdinek jarduteko eta lankidetzarako esparru bat zehaztu eta hitzartu behar dute, hartara, disfuntzioak eta bikoiztasunak saihesteko, dauden sinergiak indartzeko eta eraginkorrak izateko. Hauen bidez egin behar du:

- Autonomia erkidegoen eta tokiko erakundeen eskumen eta jardun esparruak zehaztea, herritarrei kultur zerbitzua ematean, udalen gertutasunaren alde eginda, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legea berrikustearen bidez.
- Administrazioen arteko koordinaziorako mekanismoak hobetzea, batetik, bikoiztasunak ekiditeko, eta, bestetik, interferentziak saihesteko.
- Maila askoko gobernuko mekanismo formalak sortzea, autonomia erkidegoetan oinarritutako direnak, eskumenen maila honetan, beren tokiko gobernuarekin eta administrazio zentralarekin.
- Kultur eskaintzaren mapak zehaztea, herri administrazio desberdinek eta gizarte zibilak sustatutako jardura bateratutako duena, esparru, genero eta ikus-entzuleen segmentu desberdinak orekatu dituen.

13. Kultur politikak planifikatzean eta erabakiak hartzean, arloak parte hartzeko aukera emango duen gobernantza eredu baterantz egin behar dugu aurrera.

Herri administrazioetatik erabakimenez egin behar da aurrera, kulturaren gobernantza eredu berrietarantz, hartara, arloek eta, oro har, gizarteak parte-hartzea ziurtatzeko. Horrenbestez, beharrezkoa da argi zehaztea parte hartzeko mekanismoak, arloaren parte-hartzea lehenesten den guneak eta parte hartzeko beste gune zabalago batzuk zehaztuta, eta, era berean, erabakitzeko gaitasunaren mailak mugatzea. Horretarako, hau proposatzen da:

- Arteen eta kulturaren kontseiluak sustatzea. Arlo honetako profesionalek eta eragileek erabakitakoak izango dira, zenbait gaitan erabakitzeko eta plangintza estrategikoko prozesuak bultzatzeko gaitasuna dutenak.
- Politika publikoen irizpen eta ebaluazio mekanismoak ezartzea, ekipamenduak kudeatzeko planak..., kulturaren esparruari zuzenean edo zeharka eragiten diotenak eta kultur eragileek edo herritarrek parte hartzea ekar dezaketenak.
- Agentzializazioa eta arloko parte-hartzea agentzien edo fundazioen gobernu erakundeetan.
- Arloa inplikatzeko lortzea irizpide objektiboak eta automatismoak zehaztean laguntza publikoetan.

14. Kontratatzeko publikoarekin lotutako jardunbide egokien multzo bat ezarri eta zabaldu behar da.

Kontratatze publiko orok Sektore Publikoko Kontratuen Legera egokitu behar du. Hala ere, pauso bat harago eman behar da, zerbitzu publikoak esternalizatzeko kontratuak gauzatzen dituzten enpresetako langileen lan eskubideak bermatzeko. Era berean, diruz lagundutako proiektu pribatuak kontratatzean gorde beharreko bermeei buruzko eztabaida abiarazi behar da, ez soilik minimoei dagokienez, bai eta maximoei dagokienez ere. Horretarako, hau proposatzen da:

- Kultur zerbitzuetako lehiaketa publikoetan kalitateko elementuen garrantzia handitzea, irizpide ekonomikoen kalterako.
- Lehiaketa irekiak egitea kultur ekipamendu handiak zuzentzeko, erakundetik kanpokoak diren espezialistak hartzen dituen epaimahai batekin.
- Diruz lagundutako proiektuetan ordainsariak eta gastuen egitura mugatzea aztertzea (egun, Frantzian, diruz lagundutako film luzeetan aktoreek gehienez eduki behar duten ordainsariaren gainean eztabaidatzen ari dira).
- Hirugarren eta Laugarren Sektoreko erakundeek parte hartzeari lehentasuna emango dioten kudeaketa ereduaren alde egitea. Era berean, zuzen arautu beharko dira erakunde horiek.

15. Kulturaren eta sormenaren industrien aldeko apustu estrategikoa egin behar da, hazkunde ekonomikoko eredu berrietarantz aurrera egiteko faktore gisa.

Kulturaren eta sormenaren industriak, jada ekonomian garrantzi handia duten arren, hazkunde ekonomikoko ereduaren nagusitasun estrategiko handiagoko kokaleku batean jarri behar dira. Ezagutzaren ekonomia batean, kulturaren eta sormenaren industrien balio erantsi garrantzitsua ekartzen dute eta nazioartekotzeko ahalmen handia. Alde horretatik, hau proposatzen da:

- Sormenaren arloko klusterrak sortzea, eta haietan sormenezko enpresek egon litezkeen sinergiak baliatzeko gune bat aurkitzea.
- Sormenezko arloen industria sendotzearen aldeko politikak garatzea, gihar komertzial handiagoko egituretan metatzea sustatuta.
- I+Ga indartzea kulturaren eta sormenaren arloan.
- Finantzaketa eskuratzea erraztea, aintzat hartuta ukiezintasunaren eta sormenezko enpresen produktuen arriskuaren berezitasuna.
- Enpresei lagun egitea eta enpresak nazioartekotzeko plataformak erraztea.
- Kultur enpresak babesteko politikak diseinatzea, haien egitura errealitatea kontuan hartuta, pizgarrien berariazko planekin, lurraldetasun eta berezitasunari dagokionez, tamaina txikienekoentzat.

16. Beharrezkoa da kulturaren arloan lan egiten duten enpresak identifikatu eta zuzen sailkatzea.

Kulturaren arloko enpresen sustapen eta laguntza mugak gainditzeko, lehen pausoak haiek identifikatu eta modu berezian sailkatzea izan behar du, dauden kasuistika askotarikoak kontuan hartuta. Pauso hori beharrezkoa da, ondoren, arloaren benetako tamaina

identifikatzeko ahalmena izateko, haren egitura aztertze eta berariazko aitormena aldarrikatzeko. Alde horretatik, hau proposatzen da:

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Errolda eta Ekonomia Jardueren Kode Nazionalak kulturaren arloko egungo enpresa eta lanbide errealtateetara egokitzea.
- Kultur enpresaren eredu baten berariazko erregulazioa, irabazteko asmo murrizta eta interes soziala duena, Laugarren Sektorekoa.
- Kulturaren Kontu Satelitea sailkapen honetara egokitzea.
- Kulturakotzat sailkatutako enpresen etekinen zati bat berriro kultur inbertitzera behartzen duen araudi bat sustatzea Europar.

Estatuko gobernuak

17. Kulturarako zerga sistema berria onartu behar da.

Ikuskizunetarako eta arte zerbitzu etarako %8ko BEZa %21era handitu izanak (ikaragarriko emendatzea izan da) izan dituen eragin makurrak ikusita –ikusle kopurua eta zerga bilketa gutxitu dira–, urgentziaz berrikusi behar dira hartu diren neurriak eta zerga sistema berri baterantz egin behar dugu aurrera. Horretarako, beharrezkoa da:

- BEZ supermurriztua ezartzea kulturako produktu eta zerbitzu guztietarako.
- Salbuespen fiskaleko mekanismoak sortzea Espainiako kultur ekoizpenetarako, hasiera batean %30ekoak eta gero handitzen doazenak Europako beste herrialde batzuetakoekin berdindu arte.
- Sarean kultur edukiak ibiltzeagatik aberastu daitezkeen enpresetarako berariazko zergak eta zerga finalistak garatzea.
- Zerga pizgarriak sortu eta sartzea, herritarrek kultura kontsumitzea bultzatzeko.

18. Legezko mekanismo berriak behar dira, kulturaren finantzaketa mistoa laguntzeko.

Kultura finantzatzeak ez luke egon behar herri administrazioen aurrekontuen mende soilik. Horretarako, kultur proiektuek finantzatzeko beste tresna batzuk eskuratu ahal izatea errazteko araudiak onartu behar dira. Hau proposatzen da horretarako:

- Gobernuaren agendan sartzea babesletza lege bat egitea, kultura beste eragile batzuek finantzatzea sustatzeko, administrazioa liderra den proiektuetan beharrezkoa den ekarpen publikoa alde batera utzirik. Hori guztia ahaztu gabe diru-sarrerak horiek ziklo ekonomikoekiko sentiberagoak izango liratekeela diru-sarrerak publikoak baino.
- Araudien bidez, *crowdfundingeko* plataformen alde egitea, finantzaketaz gain, beste balio batzuk bultzatzen baitituzte, esate baterako, lankidetzak, ahalegin kolektiboa, komunitatea sortzea.

19. Gobernu zentralak bere gain hartu beharko luke herritar guztiek kultura eskura izatea bermatzeko eginkizuna, bai eta maila askoko kultur sistema koordinatzea sustatzeko ere.

Gure herrialdeko kultur sistemen desberdintasunen berri izan behar dugu, autonomia erkidegoen arabera. Hartara, gobernu zentralak bertako herritarren kultur eskubideetan desberdintasunak egotea ekidin behar du. Horretarako, eta gure herrialdean eskumenetarako dagoen sistema kontuan hartuta, ezinbestekoa da gobernuen arteko harremanetarako formula berriak bilatzea, eta eginkizun hori gobernu zentralari dagokio. Horretarako, hau proposatzen da:

- Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen legea erreformatu behar da, kultur aniztasuna eskuratzea eta gozatzea arautzeko, herritarren eskubide gisa, Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideen Nazioarteko Itunaren 15. artikuluan eta Nazio Batuen Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideen Batzordearen 2009ko 21. Ohar Orokorrean ideia hartuta. Autonomia erkidegoek parte hartu behar dute egitean, finantzaketa ziurtatu behar du eta kulturako konkurrentzia sistema publikoa berriro zehaztu behar du.
- Arloz arloko planak garatu behar dira eta zeharkako politikak antolatu, arloen arteko estrategien arabera eta administrazioko beste maila batzuekin koordinatuta.

20. Urgentziazkoa da lan arloko araudi berri bat egitea arloko kideek parte hartuta, kulturaren arloko espezifikotasunak kontuan hartzeko.

Kulturaren arloko langileen lan erregulazioak kontuan izan beharko luke esparru honetan garatzen diren lanbideen berezitasuna eta, hartara, haietako asko dauden babesgabetasun egoera saihesteko. Horretarako, hau proposatzen da:

- Kulturako langilearen estatutua egitea, barnean hartuko dituen sortzaileak, interpretatzaileak eta teknikariak, kulturaren arloko lan harremanak arautzeko haien berezitasunak aintzat hartuta. Besteak beste, neurri hauek hartu beharko lirateke:
 - o PFEZaren atxikipenak murriztea.
 - o Negoziazio kolektiborako mekanismoak sortzea.
 - o Babes sistema, kontratuen jarraitutasunik ezaren aurrean.
 - o Noizean behingo lana langabeziako edo erretiroko prestazioekin bateratzea erraztea.
 - o Kontratatzean formalitate handiagoa egotea erraztea.
 - o Aldizkako denbora iraupena duten arte jardueretarako edo min hartzeko probabilitate handiagoa dutenentarako arreta bereziko mekanismoak ezartzea.

21. Hezkuntza izanik kultura herritarrengana iristeko tresna nagusia, LOMCE legea berrikusi edo hezkuntzaren arloko lege berri bat egin behar da.

Hainbat ikuspuntutatik begiratuta, LOMCE legea atzerapausoa izan da kultura eta arte diziplinak hezkuntzan lantzeko eta kulturako lanbideei lotutako titulazioak tratatzeko. Gainera, autonomia erkidegoen arabera, desberdin aplikatu izanak ziurtasunik ez handiak ekarri ditu, adibidez, testuliburuak kaleratzean. Alde horretatik, legezko esparru hau sakon berrikustea komeni da, hauek kontuan hartuta:

- Arte irakaskuntza berariazko irakasgai izatetik derrigorrezko irakasgai izatera igarotzea, Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan, publikoak edo itunduak izan. Hartara, saihestu

ahal izango da, zenbait ikastetxetan irakasgai horiek ez ematea Lehen Hezkuntzako etapa osoan. Eta ez hori bakarrik: tradizionalki eskolako ikasketen planetik kanpo gelditu izan diren arte diziplinak sartu egin behar dira.

- Artearen alor desberdinetan egindako goi ikasketen ezagutza egin behar da, ez homologatzeko modukoak, baizik eta graduko titulazioen ezagutza eginda. Alde horretatik, garai bateko tituluak egungo titulueta egokitzeko bidea jarri behar da.
- Hezkuntzaren arloan egonkortasun esparru bat sortu behar da, ukitutako alde guztiekin hitzartuta.

22. Kultura nazioartekotzea sustatu behar da, haren aniztasuna aintzat hartuta.

“Espainia marka”tik harago, Espainiako kultur pluraltasunaren arabera irudia eman behar da, hau da, nazioarteko kultur politika bat zehaztu behar da eta, hartan, osatzen duten nortasunen aniztasuna erakutsi behar da. Horretarako, hau proposatzen da:

- Espainiako Kultura Nazioartekotzeko Programa berrikusi behar da, aniztasuna nabarmenduta eta baliabide gehiagoz hornituta.

Autonomia erkidegoetako gobernuak

23. Kultur eskubideen lege bat onartu eta garatu behar da.

Haren xedea litzateke kultura eskuratzeko eta komunitateko kultura bizitzan parte hartzeko eskubidearen edukiak finkatzea, oinarritzko eta baterako bermeak eta baldintzak ezarrita eta kultur eskubideen esanahia kulturaren esparru eta arlo guztietarako giza eskubideak bezala adierazita (kultur ondarea, jabetza intelektuala, kultur industriak...), eta bai eskubide horien berezko baldintza giza duintasunerako eta herritartasun demokratikoa garatzea. Alde horretatik, hau proposatzen da:

- Diziplinen arteko mahaia sortzea, lege proposamenaren zirriborroa prestatzeko.
- Kulturaren gaian erabakiak hartzeko eta etorkizuneko kultur politikak formulatzeko prozesuan gizabanakoak eta taldeak inplikatzeko oinarriak finkatzea.
- Berme orokor batzuk ezartzea, hala nola epaile eta epaimahaiengana iritsi ahal izatea kulturaren parte hartzea eta hura eskuratzeko defendatzean.

24. Sarean kudeatzeko ereduen alde egin behar da, gertutasuna eta gardentasuna kontuan harturik.

Autonomia erkidegoetako administrazioek kultur ingurunea sarean dagoen sistema bat bezala kudeatu behar dute, kultur proiektuak bakartuta gelditzea saihestuta, zirkuituak sortuta eta eraginkortasunaren alde eginda. Gertutasuneko kultura da herritarrek eskuratzeko errazten duena eta gizartearen kohesio handiagoa eragiten du; horrenbestez, autonomietako gobernuak hori ziurtatzeko programak garatu eta ezarri behar dituzte. Zentzu horretan egin daitezkeen proposamenetako batzuk hauek dira:

- Autonomia erkidego eta 20.000 biztanletik gorako hiri guztietan kulturaren arloko plan estrategikoak egitea nahitaezkoa izatea. Plan horietan, kultur azpiegituretarako eta

oinarrizko kultur zerbitzuetarako zuzkidurak ezarriko dira, herritar guztientzako oinarritzko eskubideak homologatze aldera.

- Kultur erakunde handiek, baliabide publikoen bidez finantzatzen direnek, plan estrategikoak eta ikus-entzuleak sortzekoak, emaitzen txostenak eta finantzatzen dituzten erakundeekin dituzten programa-kontratuak egin eta haien berri beren webguneetan eman behar izatea nahitaez.
- Areto alternatiboen sareei, arte egoitzei eta elkartzeko gunei sostengua ematea.
- Ezinbestekoa izatea autonomia erkidegoek beren lurraldeko tokiko gobernuekin elkarlanean aritzeko mekanismo formalak sustatzea, kultur politikak eta ekintzak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeak.

25. Arte irakaskuntzak sustatzeko eta hezkuntza-kultura binomioa indartzeko ahalegina handitu behar da.

Autonomia erkidegoetako gobernuek konpromiso handiagoa hartu behar dute arte irakaskuntza arautu eta ez arautuekiko, eta herritar guztiengana zabaltzea bermatu behar dute, arte adierazkortasunerako kultur eskubidearen berme moduan, bai udal eskolen sareak bai lanbide heziketakoak eta unibertsitateko titulaziokoak finantzatuta. Era berean, kultur proiektuetan hezkuntzaren alderdia sartu eta hezkuntzako egiturak indartu behar dira. Horretarako, hau proposatzen da:

- Arte irakaskuntzako ikastetxeen sare egonkor bat eta lurraldeen arabera banatutakoa sortzea, baliabide publikoekin finantzatuta.
- Artearen arloko prestakuntzarako eta kultur kudeaketarako unibertsitateko tituluak sendotu eta zuzen homologatzea.
- Kultur erakunde nagusien hezkuntza programak indartzea.
- Hezkuntzako eta kulturako sailen edo kontseilaritzen artean estrategia konpartituak garatzea.

26. Arte sorkuntza babesteko konpromiso handiagoa eskatzen da, gero hartatik onura ateratzeko herritar guztiek.

Autonomia erkidegoetako administrazioen kultur ekintzaren funtsezko ardatzetako batek sorkuntza babestea izan behar du. Haren helburuak ez du izan behar hainbeste sortzaileak babestea, baizik eta sorkuntza azaleratzea erraztea herritar guztientzako onura den neurrian. Horretarako, beharrezkoa da:

- Arte sorkuntzarako laguntzen sisteman eta programa publikoetan, goraka doan sorkuntza eta komertzialki sendotuta ez dagoen kalitate artistikoa lehenestea.
- Arte egoitzak mesedetzea eta sorkuntza prozesuak indartzea.
- Sorkuntzarako laguntzekin batera prestakuntza edo zabaltze programak garatzea exijitzea, herritarrentzat eta arte sorkuntzarekin lotuta.

Tokiko administrazioak

27. Gertutasuneko kultur politiken alde erabakimenez egitea eta *bottom-up* dinamikei lehentasunezko arreta ematea beharrezkoa da.

Udalen arteko lehia ideia eta zerbitzuen kopiak alde batera utzi behar dira, eta bakoitzaren berezitasun eta ahalmenetan jarri behar da arreta, lurraldeari berari lotutako kultur proposamenak garatzeko. Plangintza estrategikoak –udalerrien lan egiteko moduaren zati ere izan behar du– bere indarrak bilatu behar ditu, ingurunerik hurbilenean errotuta dagoen errealismo baten ideiatik. Alde horretatik, hau proposatzen da:

- Kultur ekipamenduak, haien eginkizunak eta kudeatzeko ereduak antolatzean gertutasuna laguntzea.
- Gizarte zibilean sortutako ekimenak babestea, tartean sartu gabe baina zerbitzu publiko baten bermeak izanda.
- Prestakuntza programak garatzea pertsonen bizitzan zehar, eduki soziokultural eta artistikoekin.
- Lurraldeko arte eta kultur erakundeak lagundu eta sustatzea, hainbat urtetarako programen bidez.
- Tokiko arte sorkuntza sostengatzea, trukerako estrategien bidez, beste udalerri batzuekin sareak eratuta.

28. Hiriek beren eredu sozialaren, ekonomikoaren eta gobernantzakoaren erdigunean kokatu behar dute kultura, bizi-kalitatea hobetzeko mekanismo moduan.

Bizi-kalitate handiagoa duen hiri edo udalerri eredu bat eraikitze ardatza kultura izatea egin behar dute. Alde horretatik, kultura eskuratzeko eta sorkuntzako inguruneak sortzeko politiken alde egin behar da. Hauek izan daitezke proposamen batzuk:

- Kulturaren gobernantza ereduetan, berrikuntza sustatzea, tokiko mailan.
- Kultur elkartegintza laguntzea, taldeka antolatze modu berrietara irekita, formalak ez diren etara.
- Kulturaren arloaren eta beste arlo ekonomiko batzuen arteko sinergiak bultzatzea, haiek mesedetzen dituzten berariazko planen bidez.

Kulturaren arlo desberdinak eta arloz arloko politiken arduradunak

29. Arloen arteko egituretan parte hartzeko konpromiso handiagoa hartzea ezinbestekoa da, kultur sistemaren kohesiorako.

Arloko elkarte desberdinek gehiago parte hartzea eta konpromiso handiagoa hartzea beharrezkoa da arloen arteko koordinazio egituretan. Kulturaren arlo guztiei eragiten dieten zeharkako elementuei lotutako proposamenak garatzeko eginkizuna izango dute, kultur sistema kohesionatua eraikitzen laguntzeko. Honen bidez egingo da:

- Arloen arteko plataforma egonkorak antolatzea, eztabaidetarako eta proposamenetarako.

30. Antzertiaren sistemak antolatze maila handiagoa lortu behar du, proiektuak egonkortzeko eta sormena azalertzeko bidea emateko.

Antzertiaren arloak berrikuspen lan bat egin behar du, eta kalitatean eta berrikuntzan (bai sortzean, bai eta ekoizteko eta finantzatzeko ereduetan ere) oinarritutako lan ildo berrien alde egin behar du, egungo egoerari aurre egin ahal izateko. Era berean, botere publikoak inplikatzeko beharrezkoa da zirkuituak sendotzean, sormena laguntzean eta antzerki guneen kalitatea hobetzean. Alde horretatik, hau proposatzen da:

- Zirkuitu egonkorak ezartzea, ekoizpenen kaudimen ekonomikoa bermatzen dutenak.
- Arte egoitzen alde egitea.
- Gorantz doazen proposamenak eta hizkuntza eszeniko berriak sustatzea.
- Antzertiaren gaineko prestakuntza ematea oinarrizko egituretan eta goi mailako titulazioak graduaren kategoriara homologatzea.
- Lankidetzak handiagoa egotea programatzaileen eta taldeen artean, arriskua eta zabaltzeko konpromisoa partekatua izan dadin.

31. 2011ko Arte Bisualen Estrategia aplikatzea eta garatzea urgentziazkoa da.

Arte bisualen arloan, Gobernuak arlo horretako elkarte profesional nagusiekin hitzartu zuen dokumentu estrategiko bat dago. Alde horretatik, kontuan izanda proposatutako neurriak indarrean daudela eta, zati handi batean, garatu gabe daudela, hura berreskuratu eta garatzea proposatzen da. Hartara, hau proposatzen da:

- Arte Bisualen Estrategia eguneratzea, berrikustea eta jasotako neurriak garatzea, egutegi baten arabera eta aurrekontuz hornituta.

32. Ondarearen arloko lege berri bat egin behar da, egungo errealitatearekin eta gai honetan egin diren aurrerapenekin bat datorrena.

Ondarearen arloan indarrean dagoen legea 1985ekoa da, zaharkituta gelditu da eta, besteak beste, ez dio heltzen ondarearen gainean jarduteak berekin ekarri behar duen beharrezko araudiari. Ondarea kontzeptu zabal bat bezala ulertu behar da, intrintsekoa eta zeharkakoa gizartean (kultur ondarea, arkitekturakoa, hirigintzakoa, gizartekoa, hezkuntzakoa, naturakoa...), gizarte kohesionatua eta aniztasuna errespetatzen duena garatzeko oinarria dakarrena. Hori dela-eta, hura babesteak eta jendarteratzeak mugak eta mekanismoak handitu behar ditu, egungo errealitatera egokituta. Alde horretatik, hau proposatzen da:

- Ondarearen arloko lege berri bat onartzea, egungo errealitatera eta ondarearen, hura begiratzearen, aztertzearen, lehengoratzaren eta jendarteratzearen ikusmolde berrietara egokituta.
- Kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanbideei lotutako tituluak berrantolatu eta homologatzea.
- Ondarean egindako esku-hartzeak hedatzean hobetzea.
- Ondarea ondasun publiko moduan babestu eta sustatzea, turismoa erakartzeko eginkizuna izan dezakeena, baina turismoan baino gehiago kulturaren eta artearen indarra jartzen duten politikekin, hura tratatzean banalizatzea ekiditeko.

33. Musikaren arloak biziago egokitu behar du banatzeko eta kontsumitzeko eredu berrietara.

Ekoizteko eta merkaturatzeko eredu berrietara iristeko, bide horretan aurrera egin behar du musikaren arloak eta, hartara, egungo erabilera eta kontsumo ohituretara egokitu behar du. Testuingurua aldatu egin da eta musikaren industriak, eta bai sortzaileek eta interpretatzaileek ere, digitala nagusi den errealtate berri honetara egokitu behar dute. Horretarako, hau proposatzen da:

- Industria berregituratzeko eta musikari lotutako I+Gko politikak garatzea, digitalaren alde eginda.
- Taldeetan egonkortasuna ahalbidetzen duten zirkuituak sendotzea.
- Goi mailako tituluak gradu moduan onartzea.
- Nazioartekotzearen alde egitea, laguntzeko politika aktiboen bidez.

34. Ikus-entzunezkoen ekoizpena ziurtatu behar da jarduera laguntzeko eta errazteko mekanismoen bidez, arreta berezia jarrita kultur balio handiko edukietan.

Ikus-entzunezkoen arlo tradizionalari eragingo lioketen neurri asko Itunaren beste puntu batzuetan zehaztu dira. Edonola ere, ikus-entzunezkoen arloaz hitz egiten dugunean aukerak edo mugak zabaldu behar dira, asmoa baldin bada zinemaren industria eta dauden ezin konta ahala euskarrietarako ikus-entzunezko edukiak sortzen dituzten enpresa, ekimen eta sortzaile guztiak barnean hartzea. Litekeena da premiak oso desberdinak izatea, baina egungo testuinguruan indarrak batu behar dira eta baterako ahots bat lortu behar da. Alde horretatik, hau proposatzen da:

- Telebista kate publikoek konpromisoa handitzea, ikus-entzunezkoen motor diren neurrian, eta formatu eta eduki berriak garatuta.
- Ikus-entzunezkoen esparruan gorantz doazen ekimen txikiak laguntzea.
- Ikus-entzunezko ekoizpenak hedatzeko pantailen sareak ezartzea, independenteak, haiek zirkulatzea ziurtatuko dutenak.

35. Liburuak eta literatura sorkuntza laguntzeko politiketan ikuspegi berriak behar dira, eraldaketa testuinguru honetan.

Liburuaren sektorea eraldaketa prozesu batean sartuta dago, berrikuntza teknologikoen eta liburu elektronikotik askoz harago doazen kontsumitzeko eta erabiltzeko ohiturek markatuta. Aldaketa esponontzialak markatutako testuinguru honetara egokitzeko formulak bilatu behar ditu arloak, hauen bidez:

- Irakurzaletasuna sustatzeko komunikazio estrategia berriak.
- Argitaletxeen industria laguntzea, balio komertziala baino gehiago balio kulturala duten produktuetan arreta berezia jarrita.
- Liburu dendak babesteko politikak garatzea, izan dezaketen interes kulturalarengatik.

36. Hedabideek kulturako edukiekin izan beharreko konpromisoa handitu behar da.

Nahiz eta sare sozialen goraldia nabarmena den, hedabideek kultura sustatzean funtsezko eginkizuna izaten jarraitzen dute. Hori dela-eta, komeni da konpromiso handiagoa izatea:

- Kultur jarduerak sustatzeko, kontsumitzeko eta kritika egiteko irratia, prentsa eta telebista guneak sendotzean.
- Kulturaren arloko kazetaritza profesionalizatzearen eta erredakzioetan gaikuntza hori duten atalei eustearen alde egitea.
- Kultur proiektu berriei sostengua ematea, haiek babestuta eta sortzaileei zerbitzuak kontratatuta.

*Enpresak eta enpresen erakundeak***37. Enpresek kultura eta sormena haiek hazteko aukera moduan ulertu behar dute.**

Kulturaren alderdia enpresen barnean sartzea errentagarria izan daiteke epe ertainean eta luzean, gizarteko gainerako kideekin komunikatzeko eta harremanak izateko modu desberdin baterako bidea ematen baitu. Alde horretatik, hau proposatzen da:

- Enpresek beren marka kulturarekin lotzeko ahalegin handiagoa egitea sustatu behar da, babesletzaren edo kulturaren arloko eragileekin elkarlanean aritzeko berariazko proiektuen bidez. Dena den, babes horrek ez du mugatu behar enpresa handietara, baizik eta enpresa txiki eta ertainak inplikatu behar ditu, hiri handietatik kanpo, tokiko proiektuetan.
- Sormena enpresaren definizio estrategikorako guneetan sartu behar da.

*Herritarrek, oro har***38. Eskuratzeko eta parte hartzeko kultur eskubideak gauzatu behar dira eta aktiboki erreklamatu behar da haien bermea.**

Herritarrek, eskubideak gauzatu ez ezik, exijitu ere egin behar dituzte, eskubide haiek bermatzeko betebeharra dutenen aurrean. Alde horretatik, herritarrek dute beren burua antolatzeko ardura, bai kultura eskuratu ahal izatea errazteko, bai hartan parte hartzea sustatzeko ere. Hartara, hau proposatzen da:

- Gizarte zibiletik kulturaren parte hartzeko plataformak sortzea. Beren burua antolatuko dute eta kulturari eta kultur eskubideei arreta handiagoa ematea erreklamatzeko ahalmena izango dute.
- Jarrera aktiboa izatea eta kulturaren parte hartzeko eta berrikuntza sozialeko guneetan inplikatzeko sustatu behar da.

39. Egile eskubideak errespetatu behar dira eta aktiboki parte hartu behar da jabetza intelektualaren gaineko eztabaidetan.

Jabetza intelektualaren errespetatzeko konpromisoa hartu behar dute herritarrek, eta, ez badaude ados dauden araudiekin, beren burua antolatu behar dute alternatibak edo aukerak planteatzeko. Horrenbestez, hau proposatzen da:

- Egile eskubideei buruzko kontzientziario soziala sustatzea.
- Herritarrek jabetza intelektualaren gainean eztabaidatzeko plataformak egituratzea.

Ituna garatzeko konpromisoak

Kulturaren aldeko Ituna 2015, beraz, Kultur Kudeatzaileen Elkartearen Estatuko Federazioaren (FEAGC) ekimena da, eta gainerako eragileei eta, oro har, herritarrei proposatu zaie. FEAGC federazioak bere konpromiso tinkoa agertu nahi du Itunaren edukiekin eta, bere lan esparruetan, hartan bilduta dauden jarraibideak garatuko ditu. Horren haritik, FEAGC federazioak honako konpromiso hauek hartu ditu:

- Ituna Diputatuen Kongresuko talde parlamentario guztiei eta Autonomietako Parlamentuei jakinaraztea.
- Ituna udal-entitate guztiei jakinaraztea.
- Ituna herrialdeko hurrengo hauteskundeetan aurkeztuko diren alderdi politiko guztiei jakinaraztea.
- Eragile eskudunek proposamenak gara ditzaten sustatzea.
- Behar diren eztabaida-bitartekoak egituratzea (aurrez aurrekoak eta online), itunaren edukiei dagokienez.
- Itunaren alderdi batzuetan sakontzea, berariazko konferentziak eginez.
- Itunaren indarraldia eguneratzea, testuinguruko aldaketek halaxe eskatzen dutenean.

Konpromisoak konpromiso, dena dela, Itunaren garapena ez dago bermatua. Hori dela-eta, FEAGC federazioak kultur eragile guztiei helarazi nahi die Itun hau, konpromisoak har ditzaten bai huraxe garatzeko, bai hartan azaldutako helmugetarantz jotzeko.

Azken gogoeta: kulturgintza – gizartea elkarrizketa, (bir)loturaren beharra.

Egungo testuinguruan, herritarren, eta arteen nahiz kulturaren arteko konpromisoak bultzada berria behar du. Gizarte larrialdiko testuingurua bizi dugu, eta ataka horrek gure herritar asko jo ditu, langabezia tasa izugarriak baitira, gero eta jende gehiago bizi baita pobrezia mugen azpitik, eta desberdintasun sozialak gero eta handiagoak baitira. Iraganean, maiz, kulturak ohartarazi izan du inork baino hobeki gisako arazoen aurrean, eta kontzientzia horri esker, jende kulturadunak nekez eman izan dio bizkarra garaian garaiko kinka larriari.

Kultura jakintza baldin bada, gizakiaren funtsa ongizatea da, kohesioa da, talde hobekuntza da, ingurunea zalantzan jartzea da, eta, beraz, interpretatzeko eta eraldatzeko gaitasuna ere bai. Bada, zalantza bat harrotu zaigu. Nola daiteke egungo egoeran ez egituratzea gizartean bertan inolako eskaririk kultura are gehiago defenditzeko?

Izan ere, herritarrengandik hainbeste urrundu izanak eragin al du gizartean protestarik antolatu ez izatea, kulturgintzaren ataka gaiztoaren aurrean? Eta erantzunik egituratu ez izatea ere egoera bestelakotzea galdatzeko? Hiru hamarkadaz hazkunde etengabeari lotuta ibili ondoren, egun kultur munduan gero eta handiagoa da harridura, eta publikoei nahiz gizarteari begira dago laguntza eta erantzun bila. Aurrekontuetan mozketak eragin dituzten arduradun politikoak seinalatu ditzakegu erraz aski, edo kulturari gaitz eragin dioten zerga politiken arduradunak, eta leporatzen ahal zaie ez dutela mezenasgo legerik onetsi, ez dutela lege erregulaziorik egin kulturaren berezitasunak kontuan hartuta, edota ez dutela jabetza intelektualari buruzko eredu egokirik lortu, egile eskubideen defentsa bateragarri egiteko kultura eskuratzea erraztu eta bermatzeko behararekin, ingurunea gero eta digitalizatuagoa dagoen honetan. Beste herrialde batzuetan (Frantzia, kasu), esaten da kultura Estatu kontua dela, eta hori ikusita, esan daiteke oinarrian badela adostasun politiko eta soziala kultura babesteko eta sustatzeko. Espainian, ordea, oinarri hori ez da ageri, edo ez dago halakorik, eta horren ondorioz, esan daiteke ez dagoela gizartean kulturaren zentraltasunaren gaineko akordiorik, eta, esan ere, ez dagoela loturarik kulturgintzaren (egoera zertan den salatzen duena) eta, oro har, herritarren artean. Zergatik urruntasun hori? Zerk eraginda daukate herritarrek hain enpatia txikia kulturgintzaren aldarrikapeneko?

Ez dago erantzun bakarra galdera horientzat, baina erantzunetatik ondoriozta daiteke berrikusi beharra dagoela kulturgintzak berak gizartearen gainerakoari emaniko eginkizuna. Era berean, oparoaldian, kulturgintza eta kultur produktua kultur arloko politiken erdigunean jarri dira, herritarrek politika horien erdigunea direla ahaztuta, herritarrek sentitu behar baitute ardatza direla, eta ez hartzaille hutsak, hau da, eskaintzen zaiena pasiboki jaso edo ez aukeratzen dutena, beren interesen arabera.

Halaber, baliteke kultur munduari loturik ageri diren egungo ezaugarri batzuek gizartea urrundu izana. Izan ere, herritarren begietan halako lotura bat agertu da etxegintzako burbuilaren eta kultur azpiegitura handien artean, edo partzuergo handien artean, kultur ekintza txarrerako

politizatu baitute. Kulturgintzaren zati bat elkar hartuta aritu da jarduera horiekin edota ikuskizunen kontratazio publikoen burbuila izan zitekeenarekin, eta horren ondorioz, kaxeta artistikoak era esponentzian garestitu dira; horrek, bada, lotura hori areagotu egin du. Horren haritik, ez da gardentasunik izan, eta aberaste eta ustelkeria kasuak ere agertu dira hala entitate publikoetan nola pribatuetan, bai eta egile eskubideak kudeatzeko sozietateetan ere, eta hori guztia lagungarria izan da irudi hori emateko, eta gauza bera esan daiteke kultur proiektu publiko handietako arduradunak hatzez izendatzeari dagokionez.

Kulturaren balio publikoa berreskuratuko bada, gainditu beharko dira egun krisian dagoen garaiko eztabaidak, eta bestalde, lehengoratu beharko dira kulturaren balorazio sozialean interferitzen jarraitzen duten iruditeria sozial batzuk. Ziurrenera, jendeak jakingo balu zer egoera prekariotan lan egiten den kultur proiektu gehienetan (kulturgintzak berak umiltasunez maiz ezkutatuak), enpatia handiagoa eragingo litzateke. Ildo horretan, hautsi egin beharko litzateke diruz lagundutako sektorea delako irudiak duen alde txarra; batetik, praxi txarrak ezabatuz eta gardentasunaren alde eginez, eta bestetik, kultura-gizartea trukaketaren logika hautsiz, eta kultura gizartearen beraren muinari datxekion balio publikoa dela aldarrikatuz.

Premiazkoa da borondate politiko argi eta irmo bat, zertara eta itun handi bat lortzera bideratua, kulturak, bai kultur aniztasunaren berme-emaile gisa, bai gizartea kohesionatzeko berme-emaile gisa, duen eginkizuna gizartean aitortzeko, hezkuntzari eta osasunari aitortzen zaien bezala.

Kulturgintzaren eta herritarren arteko loturari beharrezkoa zaio kulturgintzak berak bere diskurtsoa berritzea, eta halaber, sektorea gauza izan dadila iraganean jendea kulturatik urrunarazi duten elementuak identifikatzeko, eta azkenik, kulturgintzak berak engaiamendua agertu beharko luke gizarteak eta herritarrek dituzten erronkekin.